

KANALAK:

Gure produktua Gipuzkoako zaharretxetako helduei eskaintzea pentsatu dugu. Hala eta guztiz ere, zaharretxeez gain, Gipuzkoako heldu guztiek izango dute aukera *Remember* erosteko. Izan ere, zaharretxea ordaintzeko gai ez diren familiek ere eskubidea dute. Gure produktuen berri izan dezaten, hainbat ekintza burutuko ditugu.

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, hitzaldi batzuk antolatuko ditugu zaharretxe hauetan emateko. Gainera, produktuak arrakasta izan dezan eta herritar guztiek produktuaz jakin dezaten, *Berria* egunkariarekin kontaktuan jarriko gara eta bertan argitaratuko dugu. Izan ere, normalean, egunkaria irakurtzen dutenak helduak izaten dira. Alabaina, sare sozialak ere erabiliko ditugu; besteak beste, instagram, facebook, tik tok eta twitter, gazteek eta ez hain helduak direnek ere produktuaren berri izan dezaten. Gure helburua, belaunaldi desberdinetakoek *Remember* produktua ezagutzea baita.

Honen harira, Gipuzkoako herri desberdinetako, bertako lokalekin kontaktuan jarri gara eta hauek propaganda egingo digute. Esate baterako, Tolosa da herrietako bat eta Tolosa&co, alegia, bertako lokalen multzoarekin kontaktuan jarri gara eta hauek produktuarekiko interesa erakutsi digutenez, prest daude propaganda egiteko.

Webgune bat ere sortuko dugu eta bertan, interesatuta dauden guztiek gure produktuaren informazio guztia aurkituko dute, gehiago informatu nahi izanez gero; produktuaren funtzioa, prezioa, arreta, etab.

Behin bezeroak ditugula zihurtatuta, beraiekin harremanetan jartzeko erabiliko ditugun bide nagusiak, posta elektronikoa edo mugikorren bidez izango da. Zaharretxeen kasuan, zuzendariak idatzi edo deitzeko aukera izango du, zenbat produktu nahi dituzten jakinarazteko. Hortik aurrerako prozesu guztia gure ardura izango da.